

## JOKUAREN ARAUAK

### PARTIDAK

- 16 puntutara jokatuko dira edo 20 minutu iraungo ditu gehienez berotzeko 5 minutu barne. Antolakuntza partiden denbora aldatu dezake.
- Lehenengo jokaldia nork hasiko duen zozketa bidez erabakiko da. Ateratzen duen taldeak petoak jantziko ditu.

### TALDE BAKOITZAK

- 3 edo 4 jokalariz izango ditu. Hauetako bat ordeztu gisa egongo da beste hirurak jokatzen ari diren bitartean. Aldaketak jokoa geldirik dagoenean egingo dira.
- Partidak 3 jokalariekin hasi beharko dira, eta edozeinekin bukatu (3,2,1).
- Orduetegiak eta kantxa emaitzen kartelan begiratu beharko dute.

### SASKIRATZEAK

- Biko saskiratzeak puntu bat balio du, eta hiruko saskiratzeak bi puntu balioko dute. Jaurtiketa libreak puntu bat balio du.
- Berdinketa gertatuz gero, talde bakoitzeko 2 jokalariz jaurtiketa libre bat botako dute gehien sartzen duen taldeak irabazlea izango da. Berdinketa jarraitzen bada beste 2 taldekideekin erabakiko da hila ala biziko jaurtiketan.

### JABETZA

- Eraso guztietan, baloia 2 puntutako esparrutik pasa beharra du BETI talde erasotzaileak saskiratze baliogarria lortu ahal izateko. Lege hau jarraitu ezean, lortutako saskiratzeak ez du baliorik izango eta baloia defentsako taldeak aterako du.
- Saskiratze baten ondoren edo baloia kanpora irteten denean kantxa erditik aterako da.

**LUTXA** egonez gero, defentsako taldeak eskuratuko du baloia

**ARBITRAIAK** falta danak jokalariek pitatuko dute. Antolakuntzak arbitroa ipini dezake.

**ENTRENATZAILEAK** Debekatua dago entrenatzaile lanak egitea, taldea automatikoki kanporatua geratuko zan.

### FALTAK

- Jokalariz bakoitzak ez du falta kopuru mugarik izango.
- Taldeko lehenengo 6 faltak erditik aterako dira, eta 7. faltatik aurrera, falta egiten dioten jokalariz jaurtiketa libre bat botako du.
- Jokalariz bati jaurtitzen ari dela, falta egiten badiote eta jaurtiketa hori sartu egiten bada, saskiratze hori legezkoa izango da eta baloi jabetza aldatuko da. Falta egin duen taldeak 6 edo gehiago baditu gainera jaurtiketa gehigarria botako da.
- Jaurtiketa libretan ez dago erreboterik, behin botata jabetza aurkariak eukiko du. Nahita eginiko faltak monitoreak pitatuko ditu eta jaurtiketa libre bat botako da. Jokalariz batek nahita eginiko 2 falta egiten baditu txapelketatik kanporatua izango da.
- Kiroltasunaren aurkako edonolako jokabide arrazoi izango da taldea txapelketatik kanporatzeko.